

Gramatikalizazio-prozesu bat: Baina enklitikoa

KARMELE ROTAETXE AMUSATEGI¹

SARRERA

Unitate askoren kasuan jazoten denez, BAINA ENKLITIKOA deitutako elementua sailkatzea gaitza izan daiteke. Eta ematen diren iritziak eta irtenbideak bat ez datozela dirudi. Adibidez, Euskaltzaindiak (prentsan) kontzesio-erlazioa adierazten duten menderagailuen artean sartzen du elementu hau; baina Luis Villasantek dio: “La conjunción adversativa *baina* (...) se emplea también para obtener formas subordinadas concesivas. Cuando tiene sentido adversativo, *baina* se coloca al comienzo de la oración; en cambio, cuando tiene sentido concesivo, *baina* ocupa el último lugar de la oración subordinada (1976: 193). Gauzak horrela, BAINA ENKLITIKOAREN azterketa honen azalpen mota bi gutxienez eskaini beharko ditu:

– Lehena anbiguotasun posibleari dagokio. BAINA ENKLITIKOAK eta BAINA aurkaritzako juntagailuak forma idatzi bera dutenez gero, argitu behar da zelan erlazionatzen diren unitate biak.

– Bigarren arazoak beste konparazio bat eskatzen du. Antza denez, BAINA ENKLITIKOAK sortzen duen erlazioak eta kontzesio-menderagailuek sortutakoak esangura bera dute eta, ondorioz, pentsa liteke BAINA ENKLITIKOA ere menderagailua dela. Hori egiaztatzeko, unitate bien ezaugarriak konparatu beharko ditugu. Hona hemen aipatutako antzekotasuna azaltzen duten adibide pare bat:

(1) Bero handia egiten du, euria dago **baina**

(2) Egingo dut, gogo handirik ez dut **baina** (Villasante, 1976: 194).

Bistan dago (1) esaldiaren hiztunaren iritzi, “bero” eta “euria” berben esangurek elkar oposatzen dutela eta “bero” egiten duenean “euririk” ez dela egiten. Hala eta guztiz ere, (1) esaten duenean, hiztunak moldatu egin di-

¹ Hizkuntzalaritza Orokorreko Unibertsitate-Katedraduna, UPV/EHUan. (Leioa).

tu aurkako adiera bi horiek esaldi berean, elkar-ekontzeko. Kontzesio perpausetan ageri den kontraste kanonikoa dugu hemen.

(2) esaldiari buruz antzeko zer edo zer esan behar da: hiztunak aditz biak aurkakotzat aurkeztu arren, *baina*-ri esker esaldi berean moldatu egiten ditu aditz biak (ikus halako moldaketak lortzeko hiztunak interpretatu behar duen *Inferentzia-Prozesua*, in Luis Flamenco García, 1999, “Las construcciones concesivas y adversativas” delako ikerlanaren 59.2.1. azpi-atala, bereziki).

Lan honek ondorengo Plangintzari jarraituko dio:

- 1 *Baina* Enklitikoaren erabilera hizkuntza idatzian eta mintzatuan: adibideak
- 2 *Baina* Juntagailua eta *-Baina* Enklitikoa
 - 2.1. Adieraren azterketa: aurkaritzako erlazioa eta kontzesio-erlazioa
 - 2.2. Azterketa formala:
 - 2.2.1. Elementu biren distribuzioak
 - 2.2.2. Juntagailuaren eta enklitikoaren fonetismoa
- 3 *Baina* enklitikoa eta kontzesiorako menderagailuak
 - 3.1. Adieraren azterketa
 - 3.2. Konparazio formala
 - 3.2.1. Metatzeko ahaltasuna
 - 3.2.2. Distribuzioa
- 4 Gramatikalizazio-prozesua.

Notazioari dagokionez, BAINA /baina erabiliko dugu juntagailua idazteko eta – BAINA/ /-baina enklitikoa idazteko. Bestalde, hizkuntza idatzitako adibide gehienak (literario deitutakoak, sarritan) 1989n Euskaltzaindiak argitaratutako *Orotariko Euskal Hiztegitik* (OEH.tik) datoz eta, erreferentzien ondoan, EUSK ipiniko dugu. “Euskaltzaindia” adierazteko.

1. ERABILERA: ADIBIDEAK

(3) Kupelagille, Perratzalleak bearra urri bakana, biak gogoa on dute **baña**, nai duten diña ez lana: pispilin (...) (Echegarai, J. V., in EUSK, 1989).

(4) *Baña* mendi arlote samarra da ura: eizerako ona izango da, *baña* ez dago bestela balio aundirik, artea edo orrelakoa ikusten zan **baña** (“Uztapide”, Olaizola, M., *Sasoi* joan da gero, in EUSK, 1989).

(5) Andrea, guztiok gera emen beartsuak, txirorik ezta emen; eskalerik, zarrak gera **baina**, eztegu inoiz ezagutu (Azkue, *Ardi galdua*, in EUSK, 1989).

(6) Onelakoxeak dire Urtegiroak Ene Begian, Asaba zarren baratza, Gure mintzo eta beste ainbat. Besterik ditugu oraingoak **baña** (Lizardi, X de, *Umezurtz Olerkiak*, in EUSK, 1989).

(7) Itz orreri sinetsiaz, bada, ez diot kalte geiagorik egingo; ongi merezia zuen **baña** (Berrondo, *Kijote*, in EUSK, 1989).

(8) Belar eta sustar guziak agortuak ditut aspaldi. Ortarako, ilbera bear du **baña** (Etzaniz, Nemesio, *Lur berri billa*, in EUSK, 1989).

(9) Gure Riktrudisek asko daki **baña**, ziñoan ortz-artean len aitaturiko neskatileak eztakit egiaz ez ete dan lamiñen ipuiñ ori (Aguirre, Tx., *Auñemendiko Lorea*, in EUSK, 1989).

(10) Guzurtia zanentz nik ez dakit **baña**, Erramon baiño maltzurragoa zanik igarten ez da gatz (Bilbao, *Ipuiñak*, in EUSK, 1989).

(11) Olango gauzarik etxakon iñoiz bere gogoratu, eskabide andiak izan zituan **baña** (Aguirre, Tx., *Auñemendiko Lorea*, in EUSK, 1989).

(12) Lotsea, bekaitza ta arimako samintasun sakon da neurrigabea irakurri ziran Arnoldoren aurpegian, berbakaz ezer ezaban agertu **baña** (Aguirre, Tx., *Auñemendiko Lorea*, in EUSK, 1989).

(13) Alper-alperrik guztia: ezneuskizu siñistuko; ezta, ezta, Iaungoiko egiazkoaren izenean esango bazendu bere, zuk eztozu esango **baña** (Aguirre, Tx., *Auñemendiko Lorea*, in EUSK, 1989).

Datuek azaltzen dute -BAINA enklitikoa ager daitekeela edo esaldi osoaren amaieran edo barruan, perpausen artean. Gainera, argi dago semantika-ikus-puntutik perpaus biak ez direla parekoak, bat mendekoa baita hain zuzen ere -BAINA enklitikoa dakarrena.

Bestalde, distribuzio geografikoari dagokionez, adibideek erakusten dute elementu hau bizkaieraz eta gipuzkeraz erabiltzen dela. Euskalki bietan, presentzia du zein barietate mintzatuan, zein idatzian.

2. BAINA AURKARITZAKO JUNTAGAILUA ETA -BAINA ENKLITIKOA

2.1. Adieraren Azterketa

Oso erlazio semantiko antzekoa dugu kasu bietan. Aurkaritzako erlazio-motan, osagai bien esangurak aurkakoak izanez gero, kontrastea sortzen da esaldi-mailan. Eta dakigunez, kontrastea da hain zuzen ere kontzesio esaldiak aurkeztu behar duena. Hori dela eta, -BAINA enklitikodun esaldiak parafrasi daitezke BAINA aurkaritzako juntagailuaren bidez, galera semantiko handirik izan barik, segidan ikusten denez:

(1') a. Bero handia egiten du, euria dago **baina**.

b. Bero handia egiten du **baina** euria dago.

(14) a. Jan zazu, eztakigu norena dan **baña** (EUSK, 1989, III al.: 695).

b. Eztakigu norena dan, **baña** jan zazu (EUSK, 1989, III al.: 695).

Hala ere, bistan dago bigarren esaldi mota hauetan (**b.** motakoetan), hiztunak ez duela kontzesio-inferentziarik egiten. Dena dela, diferentziarik nabarmena ez dago semantika-mailan, gramatikan eta fonologian baino.

2.2. Azterketa formala

2.2.1. Elementu bien Distribuzioa

Jakina denez, BAINA juntagailuak sintagma/perpaus/esaldi batzuen artean lotura gauzatzen du eta osagaiak klase berekoak izan behar dira, menderakuntza-erlaziorik azaldu barik. Gramatikaren aldetik, juntagailuen bidez juntadura hutsa egiten da eta, jakina, BAINA-ren bidez ere bai (ikus. Euskaltzaindia, 1994: 3 §). BAINA juntagailua kokatzen da edo esaldi-hasieran edo osagai bien artean. Hurrengo adibideak azaltzen ditu distribuzio mota bi hauek:

(4') *Baña* mendi arlote samarra da ura: eizerako ona izango da, *baña* ez dago bestela balio aundirik, artera edo orrelakoa ikusten zan **baña**.

Letra etzanaz markatuta ageri da juntagailua bere distribuzio bikoitzean (esaldi-hasieran eta perpaus artean). Hirugarren “baña”-ren agerpena enkliti-

koarena da (letra beltzez idatzita). Adibide honek erakusten du distribuzioak ezberdinak direla. Enklitikoa ezin da inola ere esaldi hasieran agertu; hain zuzen ere, bere aurrean zer edo zer, elementuren bat behar duelako: horrexegatik deitzen da enklitiko. Osagaien artean ere ager daiteke (5), (9), (10) enklitikoa: orduan bere ezkerreko unitateari itsatsita doa (etenik egin barik, jakina), bere eskuinean etena duelarik; normalean, grafiak komaren bidez ordezkutzen du eten hori (ikus aipatutako adibideak). Juntagailua denean, ostera, bere perpaus-arteak kokagunean, etena ageri da elementuaren ezkerrean, aurreko sintagma/osagai/esalditik bereizteko. Beraz, unitate biek distribuzio ezberdinak dutenez gero, gramatikaren aldetik esan behar da -BAINA enklitikoa ez dela juntagailua.

2.2.2. Juntagailuaren eta enklitikoaren Fonetismoa

Kasu batean eta bestean, ahoskatze diferentek ditugu. Juntagailua, hitz gramatikala baldin bada ere, hitza da azken batean, hau da, berba soltea. Bada bere autonomia osoa eta, horrexegatik, [+azentuduna] da. Gehiago ere, *enfasi azentua* eraman dezake eta, sarritan, eramaten du. Unitate honek esaldiaren barruko juntadura ziurtatzen du; eta susma daitekeenez, aurkaritzako juntadura denez gero, bere balioa gailendu egiten du hiztunak, maiz, enfasi-azentuaren bidez. Posibilitate honek argi ta garbi frogatzen du juntagailua azentuduna dela eta, horretarako, [+azentugarria] izan behar dela.

-BAINA enklitikoa era ezberdinez ahoskatzen da: ez da berba soltea; bere aurretik beste berba bat behar du ahoskatua izan ahal dadin. Ez dauka, noski, autonomiarik; ondorioz, berezko azenturik ez dauka eta [-azentuduna] da. Gauzak horrela, ez da esan beharrik enfasi-azenturik ezin duela azaldu. Baina, enklitikoa dela eta, bere aurreko unitatearen azentu-oihartzuna azal dezake –eta azaltzen du maiz– eta honek frogatzen du [+azentugarria] dela. Azentuari dagokionez, bistan dago *baina enklitikoak* eta *-(e)ta enklitikoak* portaera berdina dutela; jakina, euskal gramatikaren barruan, bata eta bestea enklitikoak ditugu (ikus Rotaetxe, 2004). Hitz batez, enklitikoa eta juntagailua ez dira homofonoak, grafia bera eduki arren. Eta ahoskatzeek frogatzen dute unitate ezberdinak direla. BAINA hitza juntagailua izaten bada (eta horretan ez dago zalantzarik), -BAINA enklitikoa ez da.

3. BAINA ENKLITIKOA ETA KONTZESIORAKO MENDERAGAILUAK

3.1. Adieraren Azterketa

Esanguraren aldetik, menderagailu hauek eta enklitikoak baliokideak dirudite. Adibidez, goiko esaldietan -BAINA enklitikoaren ordeza, kontzesiorako menderagailuren bat ipiniz gero, *parafraasiak* lortzen dira:

- (1^o)a. Bero handia egiten du, euria dago **baina**
 - b. Bero handia egiten duen **arren**, euria dago.
- (2^o)a. Egingo dut, gogo handirik ez dut **baina**.
 - b. Egingo dut, gogo handirik ez dudana **arren**.

edo:

- (11^o)a. Olango gauzarik etxakon iñoiz bere gogoratu, eskabide andiak izan zituan **baiña**.

b. Olango gauzarik etxakon iñoiz bere gogoratu eskabide andiak izan **ba-zituan ere**.

etab.

Beraz, semantika eta pragmatikaren aldetik, pentsa daiteke -BAINA enklitikoa ere kontzesiorako menderagailua dela. Baina, jakina denez, gramatikak eskatzen duen azterketa formala izan behar da eta ez semantikoa.

3.2. Konparazio formala

3.2.1. *Metatzeko Ahaltasuna*

Osagaiak trukatzeko posibilitatea kontzesiorako menderagailuen kasuan izaten da eta baita ere -BAINA enklitikoaren kasuan. Esaterako:

(15)a. Eguraldi txarra **bada ere**, mendira joaten da.

b. Mendira joaten da, eguraldi txarra **bada ere**.

eta gure goiko (14)a, b.

(14')a. Jan zazu, eztakigu norena dan **baiña**.

b. Eztakigu norena dan **baiña**, jan zazu.

Ahaltasun honek azaltzen du, jakina denez, esaldi hauetan menderakuntzako prozesua dugula. Izan ere, juntaturak baimentzen ez duen metatzea menderakuntzak baimendu egiten du. Beraz, froga formal honen arabera ere, enklitikoa menderakuntzako elementua dela esango genuke.

3.2.2. *Distribuzioa*

Baina distribuzioak azaltzen duena kontutuan edukiz, gauzak ez dira hain sinpleak. Izan ere -BAINA enklitikoaren distribuzioa ez da menderagailuen distribuzioa. Eta ez da esan beharrik distribuzioa funtsezkoa dela elementu baten klasea/kategoria finkatzeko.

Jakina denez, menderagailuak aditz jokatuena (eta ez jokatuena, baina ikerlan honetan jokatuera mugatzen naiz) eskuinean ageri dira eta agertu behar dira derrigor: beste kokagunerik ez dute eta hortik mugitzeko ahaltasunik ez dute. Mugitzeko ezintasun hau dagokie menderagailu denei, subordinazio mota denetan. Eta hau da euskal datuek egiaztatzen dutena. Hain zuzen ere, euskal menderagailuen definizioa kokagune horretatik dator, hortik mugitzeko ahalbiderik gabe, ondoren ikusten denez:

(15')a. Eguraldi txarra **bada ere**, mendira joaten da.

b. * **Baeguraldi txarra ere...**

(16)a. Etortzen denean, alde egingo dugu.

b. * **Etortzenean** den, alde egingo dugu.

c. **Laburra zela** filma esan dit.

d. ***Laburrala** zen filma esan dit.

-BAINA enklitikoaren egoera desberdina da. Gehienetan aditz jokatuaren eskuinean ageri arren, beste distribuzio bat ere aduki ahal du, *mugikorra* delako. Honako esaldi hauetan, adibidez, beste elementu baten ostean doa:

(6') Onelakoxeak dira Urtegiroak Ene Begian, Asaba zarren baratza, Gure mintzo eta beste ainbat. Besterik ditugu oraingoak **baiña**.

Jakina, errimak eragindako esaldia dugula argudiatu ahal da. Baina, izatekotan ere, "lizenzia poetiko" delakoak ezin daitezke joan gramatika-arauen aurka. Beste hauetan, gainera ez dago errima-efekturik:

(17) Artoberok, etzan bera añ argia ta gauzak ikasten erreztasun andikoa be **baña**, jatorri onekoa ta guraso begiratuen semea zan, da bekizan Kristiñauak nai ta nai ez jakin bear dituan gauza danak zerbait geiagogaz. (Aguirre, Tx., *Kresala*, in EUSK, 1989).

(18) Motza ta gauzak esango ditue nigaitik **baña**, ezagututen dot nik zeñ zer dan ta zetan dabillen (Aguirre, Tx., *Auñamendiko Lorea*, in EUSK, 1989).

Ikerlan honetan erabilitako hizkuntza idatzian halako adibide asko ematen ez badira ere, kontutan eduki behar da beste esaldi ugarietan hiztunak posibilitatea duela –BAINA enklitikoa mugitzeko, agramatikaltasunera jausi barik, ondorengo **b.** mota esaldiak azaltzen duenez:

(8')a. Belar eta sustar guztiak agortuak ditut aspaldi. Ortarako, ilbera bear du **baña**.

b. Belar eta sustar guztiak agortuak ditut aspaldi. Ortarako **baña**, ilbera bear du.

Ondorengo esaldietan ere (jadanik aipatuak eta berriro errepikatuko ez ditudanak) hiztunak mugi dezake enklitikoa era honetan:

(9') Gure Riktrudisek **baña** asko daki, ziñoan ortz-ar-tean len aitaturiko neskatilleak...

(11') Olango gauzarik etxakon iñoiz bere gogoratu, eskabide andiak **baña** izan zituan.

(12') Lotsea, bekaitza ta arimako samintasun sakon da neurrigabea irakurri ziran Arnoldoren arpegian, berbakaz **baña**, ezer ezaban agertu.

(13') Alper-alperrik guztia: ezneuskizu siñistuko; ezta, ezta, Iaungoiko egiazkoaren izenean esango bazendu bere, zuk **baña** eztozu esango.

Distribuzio bikoitz honen ahalatasuna (aditz jokatuaren zein beste elementuren eskuinean agertzea) esanguratsua da. Menderagailuek ez dute halakorik aurkezten eta, pentsatu behar da –BAINA enklitikoa ez dela menderagailua edo, behinik behin, ez dela menderagailu betea. Hauek duten finkotasuna –BAINA-k ez dauko. Beraz, orain arte egindako azterketaren arabera, esan behar da –BAINA enklitikoa ez dela juntagailua, ez eta menderagailua ere. Markak ezaugarritzat hartuta, esango genuke elementu hau [–juntagailua, –menderagailua] dela; ondorioz, –(E)TA enklitikoaren kasuan legez, sailkapen eskalarra beharko genuke eta ez dikotomikoa (ikus. Rotaetxe, 2004). Izaera bereizi hau zehatzago ikusi behar da.

4. GRAMATIKALIZAZIO-PROZESUA

Jakina denez, hizkuntza-aldaketak gure begien bistan jazoten dira eta ez bakarrik diakronian: eragin soziolinguistiko ugariak bultzatuta edo, soil-soilik, hiztunok erabiltzen ditugulako, fenomeno dinamikoak diren hizkuntzak aldatu egiten dira. Eta aldaketek erakartzen dituzten fenomeno arrunten artean GRAMATIKALIZAKIOA² dugu. Prozesu honen arabera, hizkuntza-unitateak

² Antoine MEILLET-ek (1958) sortutako terminoa eta nozioa. Geroago, hizkuntzalari funtzionalistek, batez ere, erabilia (Martinet, 1990; Givon, 1979 adibidez) eta gaur egun Linguistika kognitiboak.

Gramatikalizazioaren aurkako prozesu dinamikoa *lexikalizazioa* da. Eta honi buruz ere, euskarazko adibide ugari ditugu linguistikaren metalengoiari, esaterako: hor dugu, bat aipatzeko, gaurko “*tasun*”, atzizki batetik etorruta eta gaurko erabileran unitate lexikala dena, atzizkia izaten laga barik, jakina.

hiztegi multzotik gramatika multzora pasatzen dira, Meillet-engandik hona onartutako norabide honi jarraituz:

(19) lexical word> postposition>suffix (Hopper and Traugott, 2003: 165).

Esan gabe doa unitatea jadanik gramatikala denean, gramatikalizazio prozesuaren ondoren gramatikalizatuago bihurtzen dela. Horregatik, juntagailuak bihur daitezke menderagailu eta ez alderantziz. Era berean, perpausen arteko loturak mailakatu egiten ditu gramatikalizazio prozesuak, hierarkia honen arabera:

(20) alborakuntza> juntadura> menderakuntza

Hau da, antza, -BAINA enklitikoaren kasua. Gorago esan denez, BAINA Juntagailua hitz gramatikala bada ere, berba librea da, soltea eta, ondorioz, azentuduna. Aldaketa dela eta, unitate horrek bere aurkaritzako esangurari beste adiera bat erantsi dio kontzesio erlazioa adierazteko. Jakina, eransketa mota hori erraza zen, aurkaritzako eta kontzesio-perpausen arteko antzekotasuna kontutan edukiz (ikus gorago eta Flamenco García, 1999). Eta aldaketa semantiko horrez gainera, beste zerbait gertatu da prozesuan: sintaxiak ere hartu du parte juntagailua menderagailurantz hurbiltzeko. Izan ere, *Gramatikalizazio* prozesu dinamiko horretan, BAINA distribuzioz aldatu da menderagailuen distribuziorantz hurbiltzeko; beste moduz esanda, *rekategorizazioa/berkategorizazioa* jaso du. Dena dela, prozesu hori bete barik gelditu da eta, enklitikoa juntagailu eta menderagailuen artean geratu da: juntagailua baino gramatikalizatuagoa da baina menderagailua baino gutxiago. Tarteko klase bat dugu eta eskala batean kokatu beharko genuke, Juntagailuak eta Menderagailuak aurkako muturrak direlarik.

Hori dela eta, ezaugarrien aldetik ez da juntagailua ez eta menderagailua ere. Ohiturazko sailkapen dikotomikoa ez datorkio ondo -BAINA enklitikoari³. Laburbilduz esateko, prozesu honetan BAINA juntagailuak autonomia galdu du menderakuntza arloan sartzeko eta mendeko elementu bat bihurtzeko. Harrezkero, ez da hasieran kokatuko eta osagaien artean agertzen denean, bere aurretik elementu azentudun bat behar du bera ahoskatua geratzeko. Esaldiaren amaieran ageri denean, dependentzia bera azaltzen du. *Rekategorizazioa/Berkategorizazioa*, baina, partziala izan da eta -BAINA enklitikoa ez da menderagailu oso bihurtu. Hau frogatzeko gogoratu behar da menderagailuak dependentzia osokoak diren bitartean eta finkotasuna duten bitartean, -BAINA enklitikoaren *mugikortasuna* frogatuta izan dela goiko lerroetan.

Ikusitako prozesua ez da euskaraz soilik gertatzen. Antzeko gramatikalizazioa eta rekategorizazioa katalanez ere badugu. Aurkaritzako juntagailua PERÒ gramatikalizatu egin da kontzesio-menderagailu bihurtzeko. Aldaketa semantikoa jaso du eta gramatikak eragindako distribuzio ezberdin bat aurkezten du, era honetan:

(21)a. Tornarà tard, **però** no vindrà después de las 12.

b. Tornarà tard, no vindrà, **però**, después de las 12.

c. Tornarà tard, no vindrà después de las 12 **però**.

Goiko (21)a. esaldian, *però* aurkaritzako juntagailua den bitartean, besteetan kontzesio erlazioa adierazten du. Dirudienez, katalanez prozesua buka-

³ Antzeko gramatikalizazio prozesua jazo zaio “-ETA Enklitikoa” elementuari. Unitate honek ere sailkapen eskalarra behar du ETA juntagailua eta kausazko menderagailuen artean geratzeko (ikus. Roaetxe, 2004).

tuta dago (Cuenca, 1993) eta *però* forma idatziak ordezkaten du bai junta-gailua eta bai menderagailua ere, unitate biek esangurari eta distribuzioari esker elkar bereizten dutelarik.

-BAINA enklitikoaren kasuan, gramatikalizazio-prozesua bukatu barik dugu... oraingoz, behinik behin. Zeren, hizkuntzak “energeia” dira eta ez “eragon”, guk hizkuntzalariok betirako finkatu gura ditugun arren.

Ikerlan honen ekarpena berria da euskaraz: gramatikalizazio prozesua ez baita sekula erabilia izan –BAINA enklitikoaren egoerari azalpena emateko⁴. Hori dela eta, zenbait erantzun eragin beharko lukeela pentsa daiteke.

BIBLIOGRAFIA AIPATUA

- BOSQUE, I.; DEMONTE, V., eds. (1999), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Madrid, RAE.
- CUENCA, Maria Joseph (1992-93), “Sobre l’evolució dels nexes conjuntius en català”, *Llengua i Literatura*, 5, 171-213.
- EUSKALTAINDIA (1989), *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*, III alea, Bilbo.
- (1994), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak IV (Juntagailuak)*, Bilbo.
- (1999), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak-1)*, Bilbo.
- (prentsan), *Euskal Gramatika: lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak-2)*, Bilbo
- FLAMENCO GARCÍA, Luis (1999), “Las construcciones concesivas y adversativas”, in BOSQUE, I.; DEMONTE, V., eds. (1999), tomo III, 59.
- GIACALONE RAMAT, A. and HOPPER PAUL, J. (1998), *The limits of Grammaticalization*, Amsterdam, J. Benjamins.
- GIVON, Talmy (1979), *On understanding Grammar*, New York, Academic Press.
- HOPPER, P. J. and TRAUOGOTT, E. C. (2003 [1993]), *Grammaticalization*, Cambridge University Press.
- MARTINET, André (1990), “La synchronie dynamique”, *La Linguistique*, 1990, 13-23.
- MEILLET, Antoine (1958), *Linguistique historique et linguistique générale*, Paris, Champion (Collection Linguistique publiée par la Société de Linguistique de Paris 8).
- MORENO CABRERA, Juan Carlos (1998), “On the relationships between gramaticalization and lexicalization”, in Anna GIACALONE RAMAT and Paul J. HOPPER, 211-227.
- ROTAETXE AMUSATEGI, Karmele (2004), “-(E)ta enklitikoa sailkapen eskalarrean”, *FLV*, 95, 1-25.
- VILLASANTE, Luis Fr. (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati, Edit. Franciscana Aranzazu.

⁴ Beste ikuspegi batetik, zenbait gramatikalizazio-prozesu ikertu du Juan Carlos Moreno-k (1998).

LABURPENA

Azterlan honek proposatzen du *-Baina enklitiko*a deritzan euskal unitatea eskala batean sailkatzea, non tarteko lekua hartuko lukeen *baina* juntagailuaren eta kontzesiorako menderagailuen artean. Hipotesi hau justifikatzeko, aipatutako unitatea aztertzen da bere ezaugarri semantiko eta formalen bidez. Portaera fonikoa eta distribuzioaren portaera bezalako probek agerian uzten dute ez dela juntagailua, *baina* juntagailuaren idatzitako forma bera badu ere. Baina beste proba formal batzuk ikusita, ezin da *-baina* enklitiko menderagailuen artean kokatu, nahiz eta bere esangurak kontzesio menderakuntzaziazioa adierazten duen. Horregatik esaten da [-juntagailu], [-menderagailu] elementua dela. Azpimarratzen da *-baina* enklitikoak duen *mugikortasuna* esaldiko elementu ezberdinei eransteko, eta ez bakarrik aditz jokatu, menderagailu kasuetan jazoten denez. Propietate honen azalpena *gramatikalizazio* prozesu batean bilatu behar dela aipatzen du ikerlanak. *-Baina* enklitikoak gramatikalizazio prozesu batean sartuta izanez gero, *baina* juntagailua baino gramatikalagoa da baina kontzesio-menderagailuak baino gutxiago. Antzeko prozesua katalanez ere ematen da, non bukatuta dagoen; euskaraz, ordea, amaitu barik dugu.

RESUMEN

El trabajo propone una clasificación escalar para la unidad llamada *-baina enclítica*, atribuyéndole una posición intermedia entre la conjunción adversativa *baina* con la que comparte la forma escrita y las conjunciones concesivas de subordinación con las que comparte rasgos semánticos y pragmáticos. Sin embargo, pruebas formales importantes como los hechos de distribución separan la enclítica tanto de la adversativa como de las concesivas. Además, el comportamiento fónico de la enclítica y de la adversativa son distintos. En cuanto a las concesivas, mientras éstas sólo pueden aglutinarse a las formas verbales flexivas, la distribución de la enclítica es más variada, pudiendo aglutinarse a otras unidades de su oración. Tiene por lo tanto una *movilidad* que las concesivas no tienen. Por ello, se propone definirla como elemento [-coordinativa], [-subordinativa]. La explicación de este comportamiento se busca en un proceso de *gramaticalización*, mediante el cual la adversativa, palabra gramatical pero palabra plena con su acento, ha ido gramaticalizándose para acercarse –primero semántica y pragmáticamente y luego sintácticamente– a las conjunciones de subordinación (que obviamente son unidades más gramaticalizadas). Se trata de un proceso inacabado, a diferencia de lo que ocurre en catalán donde parece terminado.

RÉSUMÉ

Ce travail propose un classement scalaire de l'unité basque dite *-baina enclitique*, que l'on situe à mi-chemin entre la conjonction de coordination adversative *baina* –qui a la même forme écrite– et les conjonctions concessives de subordination avec lesquelles l'enclitique partage le rapport sémantique et certains traits pragmatiques. Mais d'importantes preuves formelles comme les faits de distribution permettent de séparer l'enclitique aussi bien de la coordinative que des concessives. En outre les faits accentuels séparent nettement la coordinative et l'enclitique. Pour ce qui est de son rapprochement aux concessives, l'article souligne une importante différence: alors que les marques concessives de subordination ne peuvent être agglutinées qu'à la forme verbale fléchie, le trait de *séparabilité* de l'enclitique lui permet d'être agglutinée à d'autres unités de sa proposition. Voilà pourquoi sa définition (et sa description) doit être [-coordonatif], [-subordonatif]. Pour expliquer cette situation, on propose un procès de *grammaticalisation* d'après lequel la coordina-

tive BAINA se serait rapprochée de formes plus grammaticalisées comme les conjonctions de subordination. Ce procès aurait engagé d'abord le sémantisme et les traits pragmatiques puis, en partie, des faits syntaxiques. C'est un procès inachevé, contrairement à ce qui se passe en Catalan.

ABSTRACT

The current paper proposes to classify the basque unit known as “*-baina enklitikoa*” on a gradual axis in which it would take an intermediate place between the conjunction of coordination *baina* (that has the same written form) and the concessive conjunctions of subordination. *Baina Enklitiko*a shares with the last ones common meaning and some pragmatic features. But formal features allow to distinguish the enclitic particle from other conjunctions. So that, evidence such as its accent behaviour and distribution go to show that it is not an element of coordination. Other formal evidence related with distribution does not permit a classification of the enclitic *-baina* among the concessive conjunctions of subordination. In fact, it can be bounded to other elements of this sentence, whereas concessive conjunctions must follow verbal form, without any other possibility. For these reasons, it is proposed that we are dealing with a [-coordinative], [-subordinative] element, that needs a gradual scale. In order to explain the special status of *Baina Enklitiko*a it is said that a *grammaticalization* process has taken place by which the conjunction of coordination has been grammaticalized, approaching the concessive elements, without been integrated in them. A similar process has happened in Catalan language where it seems to be achieved whereas in Basque language it is not.